

azken portuko tabernan

garikoitz berasaluze

Alain Michel
Paristik datorren
artista

Nortasun agiria

Parisen jaio zen, 1969ko otsailaren 10ean. Hainbat lekutan bizi izan da, baita Londresen ere, baina gaur egun Igo-rrren bizi da, Bizkaian, bi neskarekin batera. Zenbait ogibide izan ditu, baina gaztetandik musika izan du lagun, eta ia hogeitaldetan jo du. Duela hiruzpalau urte heldu zen Baionara, eta Bordelen lanean ari zela egin zuen topo King Mafrundi taldearekin. Taldeko abeslaria da egun. ETBko *Zoombados* programan, berriz, aktore gisa egiten du lan. Gitarra irakasten du Bilbon, eta Korrikaren abestian eta bideoan ere parte hartu du.



▲ xouse simal

A ita Guadalupekoa du Alaine, karibearra, eta ama bretainiarra. Bera, berriz, Parisen jaio zen. Txikitan musikaria izan nahi zuen, betidanik. «Eskolan nahiko ikasle txarra nintzen. Kaiera guztietan gitarra marrazten nituen. Beti musika nuen gogoan».

Lehen gitarra ere berak erosi zuen, gainontzeko guztiak bezala. «Hasieran nire gurasoak ez zeuden oso ados nire musikari ibilbidearekin, eta hemezortzi urterekin etxetik joan nintzen, musika egiteko». Autoak garbitzen irabazitako diruarekin erosi zuen bere lehen gitarra. Hura lagun izan zuen urteetan. Gurasoen etxetik joan

eta gero, Parisko beste etxe batean bizi zela izan zuen lehen harreman estua musikarekin.

Sosak, ordea, antzerkigintzan irabazi ditu batik bat. «Antzerkian egin nuen lan. Argiak eta soinua erabiltzen ikasi nuen; bost urte eman nituen lan hartan. Hiru Parisen eta bi Bordelen. Ongi irabazten nuen, bizitzeko bai. Baina musika nuen beti gogoan, eta guztia utzi nuen erabat musikari hel-

tzeko». Hamar urte dira Alaine erabaki hura hartu zuenetik, eta ordutik egunero hiruzpalau ordu aritzen da gitarra jotzen. «Eskolara bidean, ezkutatu eta bazter batean gitarra jotzen aritzen nintzen, piper eginda», esan digu.

Bordelen, antzerkigintzan lanean ari zela, King Mafrundi taldeak gitarra jole bat behar zuela jakin zuen, eta ordutik honakoak badakizkigu.

Lehenago, ordea, ia hogeitaldetan aritu da Alain. «Batik bat heavy eta hard-rock musika jo dut, baina baita jazz eta abarrak ere. Sekula arrakastarik izan ez duten disko ugari ditut talde ezberdinekin». Ektor, Tommy-Faganne edota Funkalio dira horietako talde batzuk.

Orain, King Mafrundiren hirugarren diskoa prestatzen ari da taldekideekin batera. Neskalagunarekin eta *π.L.T* taldeko lagun batekin, berriz, *Pentsamenduak* Hitz taldea sortu du, eta egitasmo honetan ari da lanean gogotsu. Bi taldeetan euskaraz abesten du. Orain bi urte ez zekien euskararik, baina AEKn eman dituen orduetako eman dute fruitua. Etxeko bi neska euskaldunek ere asko laguntzen diote. Hala ere, «pixkanaka-pixkanaka» ari dela aitor-tu digu. Ulertu, ordea, ia erabat ulertzen du. Abestien hitzak, beraz, ikasi egiten ditu. «Baina ez da buruz ikastea bakarrik. Badakit zer esaten dudana».

Hertzainak-en kantu zahar baten

hitzak gogoratu dizkiogunean, «Euskal Herrian reggaeak ez du dirurik emanen», erantzun digu Alaine. «Zaila da hemen musikatik ongi bizitzea. Talde batek edo bestek lortzen du, eta baita berbena taldeek ere. Baina regaetik behintzat ezin da bizi. Hemen-dik irten behar da horretarako». Baina Bob Marley Euskal Herrian gustura biziko litzatekeen galdetuta, zalantzak ditu Alaine. Irribarrez erantzun digu: «Jamaikan bezala biziko litzateke. Paisaia ezberdina litzateke, baina bere kolorea eta bere bizi baldintza justifikatu beharko luke. Nondik datorren eta nora doan ez dakien afrikar gizarajorena».

bat-batean

■ Liburu bat?

Charles Baudelaireren
Les fleurs du mal.

■ Film bat?

Les vacheuses.

■ Hiru musika talde?

Prince, Metallica,
Marruma eta Joxe
Ripiau.

■ Jaki gustukoena?

Colombo. Karibeko jaki
bat da.

■ Bizitzeko herri edo hiri bat?

Igorre.

■ Pertsonaia historiko bat?

Che Guevara.

■ Uharte batera eramateko hiru aukera?

Gitarra bat, emakume
bat eta ohea.

■ Noren elkarrizketa irakurriko zenuke hemen gustura?

Jean Marie Le Pen-ena.

infernuko
sukaldetik

harkaitz cano

Excuse me, my english is terrible

Horixe da azken hilabeteotan gehien errepikatu dudana esaldia. Nire alde, New Yorken denak ohituta egotea doinurik traketse-nera ere. Jendea, animatzeko dago, izorratzeko baino gehiago. Beti egokituko zaizu adarjoleren bat «zure doinu latino eder hori ez galtzeko» aholkatuko dizuna. Ez kezkatu horregatik, aixkidea, ez dut eta galduko.

Hurrena berriz, dakizuna baino gehiago dakizula iruditzen zaion norbait tokatu-ko zaizu, ibilbide luzeko hitzaspertua botako dizuna, zu lehen bihurtunean galdu zarenean. A-ja, noski-noski, lepo keinuak eta begirada zorrotzak

tartekatu behar, haria jarraitzen duzulakoa egiteko. Bakarriketaren bukaeran berriz, erabat ados zaudela esan. Denborarekin ikasten den teknika bat da.

Gogaikarrienak ordea, dakizuna baino gutxiago dakizula uste dutenak dira. Zure ingeles maila kaxkarraren aitopeneri «Bai, ikusten dut penagarri ari zarela» erantzuten diotenak; silabak Gaileren Munstroaren eran ebakitzen hasten direnak, oso-ko inutilla bazina bezala. Horrelakoetan bilatzen duzu faltan zure gaumahaiko kajoian ez daukazun errebolbera.

Hizkuntza asko dakizkien jendea ere badago. Joan den astean, «eskerrik asko» ehun hizkuntzatan

esaten zekien emakume bat topatu nuen. Ez zegoen beste hitzetan interesatua. Bai eta ez hitz primarioak omen dira, keinuen bidez zailtasunik gabe adieraz daitezkeenak. Baina eskerrak ematekoa, askoz ere ekintza gizakoiagoa ei da, garatu eta konplexua. Bere teoriaren arabera, euskaldunak ez bide gara esker onekoegi izanzen, hizkuntza gehienetan eskerrak ematea erraza den bitartean, euskaraz hitz luze eta nahaspilatua erabiltzen dugunez.

Nik uste oso baliagarria litzatekeela sentimendu garatu, gizakoi eta konplexua den «hoa pikutara» ehun bat hizkuntzatan esaten jakitea ere, baina esan dudanez, *my english is terrible*, eta isilik geratzea erabaki nuen. ■ [99-03-24]